

## II. PARTE-HARTZE SAIOA (Iritziak Erkatzeko Saioa + Herritarren Foroa), **BILBO METROPOLITARRAREN LPParen DIAGNOSTIKOARI buruzkoa**

Data: 201705/23

Lekua: Sondikako Kultur Etxea eta Udal Liburutegia

Iraupena: 10:00-13:00 eta 18:00-20:00

Bertaratutakoen kopurua: Iritziak Erkatzeko Saioa (10) + Herritarren Foroa (9)

### BFAko ordezkariak

Izena	Kargua
Idoia Garay	Lurralde Antolamenduko Ataleko burua
Leire Zenigoinaindia	Lurralde Antolamenduko Atala
Elisa Cano	Lurralde Antolamenduko Atala
Jose Manuel Alonso	Lurralde Antolamenduko Atala
Domingo Ruiz Elua	Lurralde Antolamenduko Atala

### Teknikariak

Izena	Enpresa
Aitor Sarria	Estudio-K
Cristina López	Basoinsa
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Aida López Urbaneja	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Marta Villota	Paisaje Transversal

## Saioari hasiera ematea

**Ana Izquierdo** parte-hartze taldeko kideak eskerrak eman dizkie bertaratutako pertsoneri eta, bereziki, tokiko teknikariari, jardunaldia antolatzen laguntzeagatik eta jardunaldia egiteko behar zituzten guneak prestatzeagatik.

Hala, saioaren diagnosiko-fasea oso garrantzitsua dela azaldu du laburki, eta bi helburu nagusi dituela: batetik, lantalde teknikoak **diagnostikoaren emaitzak aurkeztea**; bestetik, diagnostikoaren emaitza horiei buruzko **iritziak erkatzea**, bai teknikariek (goizean *iritziak erkatzeko saio* bat eginez) bai herritarrek (arratsaldean *herritarren foro* bat eginez).

## Diagnostikoaren aurkezpena

Hurrengo 45 minutuetan, gutxi gorabehera, EstudioK-eko **Aitor Sarria** jaunak eta Basoinsako **Cristina López** andreak hitza hartu eta diagnostikoaren emaitza garrantzitsuenak azaldu dituzte.

## Lan-dinamikak

Horren ondoren, Paisaje Transversal-eko **Iñaki Romero** jaunak lan-dinamika azaldu du: bertaratuak bi mahaitan banatu ziren eta mahai bakoitzak honako lau gai hauetako bitan lan egin behar zuen:

- A. **Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna**
- B. **Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak**
- C. **Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea**
- D. **Mugikortasuna eta logistika, Baliabideen kudeaketa jasangarria**

Mahai guztiek lau fase igarotzen dituzte:

1. Proposatutako orientazioak balioztatzea, haiek argitzea eta beste batzuk proposatzea.
2. Garrantziaren arabera lehentasuna ematea.
3. Premiaren arabera lehentasuna ematea.
4. Jarduera eta orientazio hauek lortzeko proiektu zehatzak proposatzea.

Talde bakoitzeko kideek mahaiz aldatu beharko dute bigarren fasean (txandakatu egin behar dute, bi mahaietan parte hartzeko).

Arratsaldeko saioan (Herritarren Foroa), dinamika egokitzen da eta talde berean gai guztiak lantzen dira.

## Emaitzak

### IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 1. MAHAIA:

#### - Mugikortasuna eta logistika, eta Baliabideen kudeaketa jasangarria

Behean, **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENeko** orientazioak bildu dira, handienekotik txikienera ordenatuta. Halere, nabarmendu behar da orientazio gehienak oso garrantzitsutzat hartu zituztela eta kostatzen zitzaiela lehentasunak ezartzea:

- “Garraio kolektiboari dagokionez, plataforma eskusiboko (autobusa edo tranbia) sare zabala garatzea, ordutegia fidagarriagoa izan dadin”*
  - Bide publikoan eta eraikinetan bizikletetarako aparkalekuak gaitu behar direla eta bizikletak garraio publikoan sartzeko baimendu beharko litzatekeela adierazi dute.
  - Garraioak bateragarri egitea: mota desberdinetako garraioak konbinatzeko erraztasunak ematea eta, horrenbestez, gaizki lotuta dauden puntuetara iristea ahalbidetzea; kasu baterako, erabiltzaileek trenetan edo autobusean bizikletarekin sartzeko baimena izan beharko lukete, garraio publikotik irtetean bizikleta bidez mugitu daitezuten. Horretaz gain, puntu gehiago behar adina ekipamenduz hornitzea (bizikletetarako aparkalekuak), beste garraio bide batzuk hartzeko puntuetatik gertu.
  - *Zamudioko intermodala* sortzea proposatu dute, bizikletak alokatzeko zerbitzu batekin eta bizikletetarako aparkalekuekin. Geltokian leku bat egotea, bidaiariak bertara iristeko, eta handik garraio publikoa eta bizikleta hartzeko. Hala, Zamudio eta parke teknologikoaren arteko konexioa errazteko izan dadin lortzea, ez soilik autobus bidez, bizikleta bidez ere bai.
  - Ezinbestean hobetu behar da Zamudioko tren-geltokiaren eta lantokiaren arteko konexioa.
  - *Nabardura* hau egin dute: **ordutegia fidagarriagoa izan dadin** esaldiaren ordez, **maiztasuna handiagoa izan dadin**.
- “Automobil pribatuaren erabilera murriztea, garraio kolektiboaren erabilera bultzatuz”*
  - Komentatu dute garraio publikoaz hitz egitean errentagarritasuna alde batera utzi behar dela, gizarte-inbertsio bat baita.
  - Komunikazioaren hobekuntza sustatzea, tren arinaren konexioa indartzea eta kolapsatutako guneak eta errepideak arintzeko proiektuak bultzatzea planteatu dute.
  - Bizikleta garraio bide gisa erabil dadin (eta ez soilik aisiarako tresna gisa) sustatzea. Eta automobilaren ordez bizikleta erabil dadin bultzatzea.
  - Garraio publikoa gizarte-inbertsio gisa aktibatzea.
- “Txartel bakar bat sortzea garraio publikorako”*
  - Jorrotutako zenbait arazoren konponbidea izan liteke. Kezka handia mahaigaineratu dute, zenbait puntu garrantzitsutara iristeko zailtasunen inguruan. Kasu baterako, ez da erraza honako leku hauek garraio publiko bidez ailegatzea: osasun-zentroak (Getxo, Berango, Gurutzeta, Galdakao, etab.); unibertsitatea; aireportua (azpiegitura handi hau gertu kokatuta dago, baina Bilbotik baino ezin da zuzenean iritsi bertara).
- “Bizikleta bidezko mugikortasun-ahala areagotzea, dauden trazadurak egituratuz eta osatuz, eta haien eta garraio kolektiboaren arteko truke modalak erraztuz”*
  - Oraindik elkarren artean isolatuta dauden auzoen arteko konexioak berraztertzea eta zuzentzea proposatu da.

- Orientazioaren hirugarren puntua lehentasunezkoztat jo dute: errazagoa izan beharko luke garraio bide batetik bestera joatea eta, horretarako, bizikleta garraio publikoan erabiltzea baimendu beharko litzateke, batez ere, kontuan izanik Txorierrin zaila dela puntu garrantzitsu edo interesgarri batzuetara heltzea.
  - Gune horretan, udalerrien arteko lotura oso korapilatsua da eta, horregatik, udalerriaz gaindiko plan bat idaztea iradoki da, puntu guztiak eta udalerrien arteko lotura posible guztiak elkartuko lituzkeen plan bat, hain zuzen ere (ohartarazi dute horrelako plan batek ezinbestean izan beharko lukeela udalerriaz gaindikoa, udalerrien artean elkarrizketa sortzeko eta elkarren artean koordinatzeko, udal bakoitzak bere plana izan ordez).
5. Proposamen berria: *“Bilbo Metropolitarrako garraio publiko osoren homogeneizazioa (tarifei nahiz ordutegiei dagokienez) faboratzea”.*
6. *“Tren bidez aireportua, osasun-zentroak, unibertsitatea eta ospitaleak eta Txorierrin ~~Bilbo~~-**hiriko gunea** lotzea, bidaiariak garraiatzeko”.*
- Komunikazioa erradialagoa izan dadin sustatzea (zentralizatu baina gehiago), interes-puntu horiek azpiatalekin lotzeko.
7. *“~~Udalerririk~~ **Antolamendutik** energia jasangarrirako berezko ekintza-plan bat idaztea, udalerriko energia-eredua zehaztuz”*
- Energia-eskariari buruzko azterlan lokalagoak egin beharko liratekeela aipatu dute.
  - Udalerriaz gaindiko zuzendaritzak arauak ezarri beharko lituzkeela proposatu dute; hau da, LPPtik edo LAGetatik (Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetatik) emanda etorri beharko lukete gidalerroek.
  - Energia-ereduari dagokionez, ados daude energia jasangarriko plan bat LPPetatik eta udalerriaz gaindi idatzi behar dela.

Alde handiarekin, lehentasun eta garrantzi txikiena eman zitzaion orientazioa hau izan zen (kontuan hartu behar da Txorierriri buruz egin dugula lan):

8. *“Tren bidez Bilboko Portua hiriguneekin konektatzea, interferentziarik gabe, salgaiak garraiatzeko”*

Orientazio hau alde batera utzi dute erabat:

9. *“Metropoli-eremutik kanpoko tokiekiko mugikortasuna eta loturak hobetzea, abiadura handiko trenbidearen bitartez”*

- **Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea**

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENeko** orientazioak, handienekotik txikienera ordenatuta:

1. *“Diru-sarrerak lortzeko beste iturri batzuk sustatzea, nekazaritza-produktuekin eta nekazaritza-turismoarekin lotutako iturriak, hain zuzen”*
  - Nekazaritza-ustiategiak faboratuz/erraztuz nekazaritza-jarduera indartu nahi dutela adierazi dute.
  - Nekazaritza-guneen eta nekazaritza-turismoen arteko bateraezintasunaren arazoa konpontzen saiatzea (horrelako guneetan landetxeak, apartamentuak eta abar alokatzeak arazoak sor ditzake).
  - Landaguneen zerrenda berriak dadin proposatzea, eta nekazaritza-turismoak ez egotea egungo landaguneetara mugatuta.
  - Mugak dituzten guneetan jarduera erregulatzea.
  - Nekazaritza-turismoko jarduera ez ezik, baserriko bizitza errazten duten beste hainbat jarduera ere (lurralde-zaintza) sustatzea, protekzionistegia den figura batek nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren garapena oztopatzen baitu.
  - Nekazaritza-jarduera sustatzeko eta beste finantziario-iturri batzuekin konbinatzeko interes garbia dagoela nabarmendu dute, baina normalizatzea edo horrelako zailtasunak gainditzen laguntzea ezinbestekoa dela azaldu dute.
2. *“Azpiegitura berdearen eta azpiegitura 'grisen' arteko gatazka posibleak identifikatzea eta elkarreragin horiek kudeatzeko neurriak ezartzea”*
  - “Hirikoa” lurraldearekin iragazkortzea sustatu behar da.
  - Komentatu dute landa-ingurune batean bizi direnez, orientazio hori oso garrantzitsua dela, “zementatutako horma” erraldoi bat dagoelako, eta horma horren eraginez, ez dagoelako konexio ona biztanleriaren eta ingurune naturalaren artean.
  - Azpiegitura berdearen funtsezko zati bat ibaiak dira; horrelako guneen eta azpiegitura grisaren arteko iragazkortasuna sustatu nahi da, batik bat, kontuan izanik Txorierrin kontraste handia dagoela hirikoaren eta landakoaren artean. Iragazkortasun hori ibai-ingurunean eta haien galeria-basoetan gune degradatuak lehengoratzuz eta konektibitatearen bitartez lortzen da.
  - Udalerriaz gaindiko konponbideak proposatu dituzte, ibaiak multzo gisa kontuan hartzeko, zatika kontuan hartu beharrean.
3. *“Ibai-bide nagusiak ijezketagunez hornitzea, bi erabilera izan ditzaten: batetik, aisialdia; bestetik, hiribideen kontrola”*
  - Gai horri erregularizazioa falta zaiola eta *gainezkagarritasunaren* gainean lan egiteko erremintetan laguntza behar dutela uste dute.
  - Eremu naturalen eta hiri-eremuen arteko iragazkortasuna bultzatzea. Hain modu drastikoan banatzeko pertzepzioa minimizatzea.
  - Ibilguetan gertatzen diren aldaketak detektatzea eta narriadura handiko edo artifizial bihurtutako ibai-zatiak edo guneak iragazkortzen saiatzea.
  - Horrelako guneetan erabilera publikoa bultzatzea eta elkarren arteko loturak hobetzea. Ibaierzak aprobetxatu eta aisiarako erabili behar direla uste dute.
4. *“Landaguneak zedarritzeko eta antolatzeke eta baserriak banatzeko irizpideak ezartzea, bertan behera gera ez daitezen”*
  - Horrelako eremuak (baserriak eta landa-esparruak) luzaroan erabil daitezzen sustatzea eta erabilera hori arautzea.

- Gure kultura-ondarea lehengoratzeko neurri eraginkorrak piztea.
5. *“Paisaia –kostaldekoa, nekazaritza/basozaintzakoa, meatzaritzakoa eta hirikoa/industrialababesteko eta antolatzeko neurriak abiaraztea”*
  6. *“Mendi babesleen katalogo bat sortzea eta basoen kudeaketa egokia sortzea: selektiboagoa eta ez hain intentsiboa”*
    - Baso-masaren erabilera ekoizkorak eta espezie autoktonoen babesa eta sustapena ahalbidetzea eta bateragarri egitea.
    - Bertan behera utzita zeuden eta beren kabuz lehengoratu diren basoguneen kasuen alde positiboa ikustea eta erreplika posiblea arautzea.

Parte-hartzaileetako batek, gainera, ingurumen-alorrean dagoen segurtasun-falta juridikoari buruzko eztabaida mahaigaineratu du eta arazo hori Lege Autonomikoaren bitartez erregularizatzeko eskatu du. Tresnak arinagoak izatea sustatzea proposatu du, baita LPptik *photo finish* bat eskaintzea ere, lan egiteko zer erreminta dauden jakiteko gidaliburu gisa balio dezan.

**IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 2. MAHAIA:**

- Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak
- Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENKO** orientazioak, handienekotik txikienera ordenatuta:

- 1. *“Hiri-merkataritza bultzatzea, merkataritza-ekipamendu handien ordeztu”*
  - Merkataritza-ekipamenduen gehieneko tamaina mugatu beharko litzatekeela komentatu dute.
  - Argitu dute oso orientazio positiboa dela gizarteratzea eta genero-berdintasuna bultzatzen dituen hirigintza lortzeko.
  - Hala eta guztiz ere, proposamen hori berandu datorrela deritze (Txorierrin ez).
- 2. Proposamen berria: Eskualdeko oreka bultzatzeko kudeaketa-tresna bat beharko litzateke.
  - Finantziario partekatua zenbait esparrutan.
  - Mankomunitatea abiapuntu ona da baliabideak eta ekimenak partekatzeko esparru gisa.
  - Mozkinak partekatzen laguntzeko edota hartara behartzeko tresna hobetoak.
  - Diru-sarrerak eta gastuak konpentsatu egin beharko lirateke industriaguneen, nekazaritzaguneen eta abarren artean.
- 3. *“Parke teknologiko berriak hirien aldameneko eremuetan kokatuta egotea (derrigorrean)”*
  - Hirigunean ere egon litezke, jarduera jakin batzuen kasuan izan ezik.
  - Parke teknologiko berririk egon beharko ote lukeen planteatu dute.
  - Parke teknologiko berriak Zamudioko hiri-eremuren batean egon daitezkeela proposatu dute.
  - Zamudioko parkean trafikoko derrigortu asko sortu da, eta horrek aparkatzeko arazoak eragin ditu.
- 4. Proposamen berria: Udalerrien arteko adostasunaren bitartez abiatzea LPP (behetik gora).
  - LPP ez da eskualdeko baliabideak koordinatzeko kudeaketa-erreminta bat, plan bat baino ez da.
- 5. *“Etxebizitza-proposamenak hiru konponbide hauetarantz bideratzea: etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea; birmoldaketa; eta birdentsifikazioa”*
- 6. *“Lurzoru industrialak zaharkitu eta hutsen biziberritzeari heltzea, eta horretarako kudeaketa- eta finantziario-tresnez hornitzea”*
  - Urgentzia handia eman diote orientazio horri, eta adierazi dute lurzoru industrial kutsatuetarako kudeaketa eta finantziarioa falta dela.
- 7. *“Gure lurraldeko espazioa mugatua dela kontuan izanik, lurzoru berriak industria-jardueretarako okupa daitezkeen saihestea, hutsik dauden lurzoruak birstutu arte”*
  - Aurreko orientazioari bezala, urgentzia handia ematen zaio orientazio hari.
  - Halere, lurzoruak nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako erabiltzeko baimena ematen jarraitu behar dela uste dute.
- 8. *“Edukiera handiko garraio publikoko geltokien inguruko lurzoruetan jarduera sor dadin faboratzea”*
- 9. Proposamen berria: Nekazaritza-erraztasun eta -ekimen ertainak eta handiak bultzatzea.
-

10. Proposamen berria: LPPren barnean jarduerak eta bititokiak berriz orekatzea.

- 11. *“Biztanleria zahartzen ari denez, ekipamendu sozialen eskaria handiagotzen ari da; arazo horri erantzutea”*
- 12. *“Udalerrriak ekipamenduekin lotuko lituzkeen sare bat sortzea, Done Jakue Bidea, Bilboko Inguruko Berdegunea, itsasoko bidea eta Bilboko Burdin Hesia oinarri gisa hartuta”*
  - Jada Txorierrri zeharkatzen duen ardatz bat badagoela komentatu dute, oinezkoentzat dela eta ia amaituta dagoela baina bidegorria falta dela.
- 13. *“Hiri-garapen berrienak birdentsifikatzea eta tinkatzea, haien konexioa garraio publiko bidez eta haien zentralitatea faboratze aldera”*
  - Konexio hori metro arin bidez ezar dadin proposatu dute, Loiu konektatzeko.
- 14. *“Oraindik garatu ez diren dentsitate baxuko zenbait gune birdentsifikatzea eta haien kategoria aldatzea (urbanizagarri izatetik landagune izatera aldatzea)”*
  - Aurreko LPPn jasotako lurzoru urbanizagarriaren orbana gaizki irakurri zen, eta udal asko muturreraino joan ziren lurzoru urbanizagarriarekin. Kontu handia izan behar da horrelako gauzeekin.
- 15. *“Erabilera bat baino gehiago nahasten dituen lurralde-eredu trinkoa sustatzen jarraitzea, bizitegi-erabilera eta jarduera bateragarriak ez ezik, hainbat jarduera ekonomiko elkarrekin ere nahasten dituen lurralde-eremua, hain zuzen”*
  - Bereziki nabarmendu dute “bateragarriak” kontzeptua, lehen mailako premiatzat hartzen baitute.
- 16. *“Bilboko itsasadarraren inguruan antolamendu globala eta koordinatua planteatzea, zeharkatzen dituen udalerrri guztiak bilduko dituena”*
  - Badaude zenbait udalerriren arteko akordioak, haien muga jarraitutasunarekin loturiko arazoak konpontzeko.

Halaber, landutako orientazioez gainera, beste zenbait hausnarketa ere iradoki zituzten, hala nola hauek:

- Txorierrri eta Bilbo garraio publikoaren bitartez ongi lotu behar direla esan zuten.
- Batzuek ustez, Txorierrri ez du zertan izan bertakoak hartzeko tokia.
- Eraikuntza-urkilari buruzko iruzkin bat egin duten: beharrezkoa da gutxienekoa kentzea eta gehienekoa jaistea.
- Landa-jarduerak –batez ere ertainak eta handiak– sortzeko oztopoak ezabatu behar dira.



**HERRITARREN FOROAREN 1. MAHAIA:****A. Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna****B. Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak****C. Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea****D. Mugikortasuna eta logistika, eta Baliabideen kudeaketa jasangarria**

Herritarren foroko arratsaldeko saioan mahai-inguru bat sortu zen eta hainbat orientazio mahaigaineratu ziren mahai-inguru horretan; hona hemen orientazio horiek, **GARRANTZI ETA PREMIA** handienetik txikienera ordenatuta:

- 1. *“Bizikleta bidezko mugikortasun-ahala areagotzea, dauden trazadurak egituratuz eta osatuz, eta haien eta garraio kolektiboaren arteko truke modalak erraztuz”*
  - Bizikleta Plana (2003an onetsia) jada indarreko LPPn dagoela azaldu dute, baina ez dakitela zergatik ez den oraindik garatu. Bi proiektu egituratzaile onetsita daude baina oraingoz ez dira abiarazi. Lezamako bide zaharra eta Txorierriko bidegorria.
  - Bi sare/funtzio desberdin daudela aipatu dute: autoaren alternatiba eta ibilbide naturalistikoaren sarea.
  - Komentatu dute azken urteotan hobekuntza bat egon dela sare horren konektibitatearen garapenean, eta gizarte-kontzientziazioa handiagotu egin dela.
  - Adierazi dute askotan halako proiektuak abiarazteko interesa galtzen dela, “diru gutxi” ekartzen dutelako.
  - Uste dute udalerriaz gaindiko sarea “argitu” egin beharko litzatekeela, trazadura nagusia zehaztu beharko litzatekeela, eta batez ere, falta diren tartekak lokalizatu beharko liratekeela.
  - Dokumentuan islatu egiten da, baina ez da garatzen eta, horrenbestez, udalerrien arteko loturak ez dira abiarazten, ezta ebazten ere. Izan ere, zenbait gune ia konektatuta daude; esate baterako, Sindikatik unibertsitateko trazadura begien bistakoa da, baina ez amaitzen.
  - Iruditzen zaie horren arrazoia beharbada sare orokorra “marratzu” beharra dela (eta ez soilik zatika), eta gaur egungo sarea argitu eta homogeneizatu beharra, banetan erabilgarria izan dadin.
- 2. **Proposamen berria:** Ingurumen-jardunak etxebizitza-jardunak bezain lotesleak izatea.
  - Natura-ingurunea babesteko neurriak falta direla aipatu dute. Eta jakin nahi lukete zer egingo den proposamen horiek lotesleak izan daitezten.
  - Desoreka hobetu beharko litzatekeela deritzote, baina ez soilik hirigintza-garapeneko neurriekin; bizitoki- eta ekonomia-garapenak eta natura-ingurunea babesteko neurriak eskakizun-maila berean ipini nahi dituzte.
  - Azaldu dute xedea ez dela soilik “babestea”, proposamenak egiteko neurri aktiboak ere sustatu behar direla.
  - Komentatu dute zaila dela Bilbo Metropolitarran lurralde-antolamendu jasangarri bat diseinatzea, eremu berean Txorierriko landa-ingurunean eta Bilbo Handia txertatu beharko bailirateke.
  - Azaldu dute lurzoru bat urbanizagarri industrial gisa sailkatzen denean ahal ekonomikoa balioztatzen dela, baina kontrakoa egiten denean, nekazaritza-lursail baterantz “jaitsi” nahi denean, ez dakitela kuantifikatzen, eta balioztatzen hasi beharko luketela.
- 3. **Proposamen berria:** LAGetan proposatutako bizitoki-kuantifikazio berriaren ebazpena arintzea, berandu iritsi daitekeelako.

- 4. *“Gure lurraldeko espazioa mugatua dela kontuan izanik, lurzoru berriak industria-jardueretarako okupa daitezen saihestea, hutsik dauden lurzoruak birstortu arte”*
- “Beherapeneko” garai batean gaudela aprobetxatzea proposatu dute, jada dauden baliabideak (esate baterako, Txorierriko lantegi asko bertan behera utzita daude) aprobetxa daitezke, lurzoru gehiago okupatu beharrean.
- 5. *“Oraindik garatu ez diren dentsitate baxuko zenbait gune birdentsifikatzea eta haien kategoria aldatzea (urbanizagarri izatetik landagune izatera aldatzea)”*
- Kontuan izan behar dugu zenbait udalerritan beherapena nabarmena dela eta leku gehienetan gertatzen ari den etorkizuneko aurreikuspen positiborik ez dagoela (hazkunderantz eta lurzoru berrien kalifikaziorantz).
  - Proposamen hori oso zaila izango dela uste dute.
  - LPPren berrikuspenak HAPOetan izan dezakeen eragin negatiboak kezkarriak direla esan dute.
  - Hau salatu dute: antzinako arau subsidiarioetan bilduta zegoen zenbat etxebizitza eraikiko ziren, eta HAPOen idazketak, lurzoruaren okupazioa kontrolatu eta murriztu ordez, urkila ireki eta Txorierrin eraiki daitezkeen etxebizitzaren kopurua handiagotu du, oro har.
  - Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenak arazo hori zuzendu eta urbanizazioaren gaineko desfase hori erregula lezakeela erantsi dute.
  - Bere garaian HAPO berrien idazketa bultzatu ez zuten udalerririk txikiak (despopulazio handiena dutenek) orain ezin dute eraiki (ezin dute “hazi”), antolamendua berrikusi duten nukleoek baino ezin dute hazi, eraikuntza berriak har baititzakete beren gain.
- 6. *“Ibai-bide nagusiak ijezketagunez hornitzea, bi erabilera izan ditzaten: batetik, aisialdia; bestetik, hiribideen kontrola”*
- URAK emandako informazioari buruz eztabaidatu da: uste dute organo horrek ez duela behar bezala aurreikusten ez lurraldearen artifizializazioa ez hark izango duen eragina.
  - URAK ibaien ertzetan gehiegizko garbiketarako ekiditeko neurriak abiarazi ohi dituela adierazi dute.
- 7. *“Udalerririk ekipamenduekin lotuko lituzkeen sare bat sortzea, Done Jakue Bidea, Bilboko Inguruko Berdegunea, itsasoko bidea eta Bilboko Burdin Hesia oinarri gisa hartuta”*

Beste eztabaida/zalantza hauek ere azalatu dira:

- Plan horren eta estatu-planen arteko interferentziak. Komentatu da LPPn kontuan hartzen direla afektazio horiek, baina ez direla ugariak.
- Aurreko LPPren eta egungoaren diagnostikoen arteko antzekotasuna.
- Mugikortasuna: igarobidean ibilgailu astunen zirkulazioa txikiagotzeko laguntza eskatu dute.
- LAGen idazketaren eta LPPren idazketaren artean inkongruentziak egon daitezkeela eta hori kezkarria dela adierazi dute, LAGak lehentasuna dutela azpimarratuta.